

Tratamendu fitosanitarioak nola erabili

Askotan, tratamendu fitosanitarioak azkarregi eta arreta handirik gabe egiten ditugu. Horrelako tratamenduren bat egin behar dugunean, hainbat alderdi izan behar ditugu kontuan; izan ere, modu honetan, bai landareentzat eta baita guretzat ere, eraginkortasun handiagoa eta kalte txikiagoak lortuko baititugu.

Nahiz eta gure baratzean erabiliko ditugun produktu fitosanitarioak ekologikoak izan, horrek ez du esan nahi hauek erabiltzerakoan kontu izan behar ez dugunik (puntu garrantzitsuenetariko bat da). Alde batetik, aholkutako neurri edo dosia errespetatzen ez badugu, eta behar baino kopuru gehiago botatzen badiogu, landarea eta fauna-laguntzailea kaltetu ditzakegu, guztiz hondatu baititzake. Beste alde batetik, haize zakarra egiten duen egunetan aplikatzen badugu, behar ez duten laboreetara zabaltzeaz gain, haizearen kontrako norabidean egiten badugu, busti egin gaitzake eta hau ez da batere gomendagarria. Nahiz eta produktu ekologikoak izan, zenbait substantzia gure begietarako, azalerako... kaltegarriak izan daitezke; beraz, produktu hauek erabili behar ditugunean, eskularruak erabiltzea komeni da.

Produktuen eraginkortasuna

Produktuen eraginkortasunari dagokionez, jakin behar dugu produktu hauek ez direla produktu kimiko-sintetikoak bezain indartsuak; beraz, hauek aplikatzerakoan, lasaitasunez eta pazientzia handiz egin beharko dugu, landare guztia bustiz edo izurritea dagoen tokia bustiz. Fungizida eta intsektiziden kasuan, hosto azpiak bustiko ditugu; bestela, ez dira eraginkorrak izango.

Lainoztatzailearen pita edo aho-pieza egitea nahi dugunaren arabera, ondo doitzea komeni da. Normalean, produktu gehienak aplikatzerakoan, lainoztapen moduan erabiliko dugu landare osoa ondo bustitzea komeni baitzaigu. Hala ere, oso indartsuak ez diren izurriteentzat, landare-zorriak adibidez, hauek landaretik kentzeko, ura zurrustaka aplikatu daiteke inongo produkturik gabe.

Bero handiko egun eguzkitsuak ere ez dira egokienak produktu hauek aplikatzeko; horregatik, eragin gutxien izango duten momentuetan aplikatzen saiatuko gara eta sufrearekin arreta berezia jarriko dugu, 30°Ctik gora fitotoxikoa izan baitaiteke.

Cómo aplicar los tratamientos fitosanitarios

Muchas veces, realizamos los tratamientos fitosanitarios sin prestarles demasiada atención, haciéndolos a toda prisa. A la hora de realizar uno de estos tratamientos, tenemos que tener en cuenta distintos factores, ya que de este modo conseguiremos mayor eficacia y menos perjuicios tanto para las plantas como para nosotros.

Uno de los puntos más importantes es que aunque los productos fitosanitarios que utilicemos en nuestra huerta sean ecológicos, eso no quiere decir que no tengamos que tener cuidado a la hora de utilizarlos. Por una parte, si no respetamos la dosis recomendada por el fabricante y le echamos más cantidad, podremos perjudicar a toda la fauna auxiliar como a la propia planta, ya que puede llegar a estropearla.

Por otra, si aplicamos estos productos en días de mucho viento, además de que el producto irá a cultivos que no lo necesiten, si lo hacemos con el viento a la contra, puede llegar a mojarnos, y esto no sería nada aconsejable. Aunque sean productos ecológicos, algunas sustancias pueden ser perjudiciales para nuestros ojos, piel etc. Por ello, siempre que manipulemos estos productos, conviene utilizar guantes.

Eficacia de los productos

En cuanto a la eficacia de los productos, hay que saber que estos productos, no son tan potentes como los productos químico-sintéticos, por lo que a la hora de aplicarlos, se deberá hacerlo con tranquilidad y mucha paciencia, mojando toda la planta o la zona donde esté la plaga; en el caso de los fungicidas e insecticidas, mojando por debajo de las hojas, de lo contrario, no serán efectivos.

Conviene regular bien la boquilla del pulverizador, según qué es lo que queramos realizar. Normalmente utilizaremos pulverizaciones en forma de nebulización, para la aplicación de la mayoría de los productos, ya que nos interesa mojar bien toda la planta. Aun así, para plagas no muy fuertes de pulgón por ejemplo, se puede aplicar agua a chorro, sin ningún otro producto, para quitarlos de la planta.

Los días de mucho sol y calor tampoco son los más adecuados para aplicar estos productos, por ello, siempre intentaremos aplicarlos en los momentos de menor incidencia, con especial atención al azufre, ya que a partir de 30°C puede llegar a ser fitotóxico.